

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a

621. zenbakia

GARRAIOAK/ Labegaraietako industrialdearen ondoan beste geltoki bat jartzeko eskaera egingo du Udalak

Tranbia Ibargarai atzealdetik igarotzearen alde azaldu zen udalbatza aho batez

EDU MENDIBIL

Udalbatzak tranbiaren proiektuaren gaineko alegazioak aztertu zituen Aste Santuko oporren aurretiko azken osoko bilkuran. Besteak beste, Ibargaraiko tartean, tranbia lehengo trenbide zaharretik igarotzeko eskaera aho batez onartu zuen udalbatzak.

Matxiategi kalean aurreikusitako geltokitik hasi eta Zubiaurre aurreko Ozaeta kalekoraino trazatu berri bat proposatzen du Udalak, tarte baten lehengo trenbide zaharra erabiliz hain zuzen. Jaurlaritzaren hasierako asmoa tranbia Ibargaraitik eta Zurraderotik igarotzea zen, baina Udalak ez dago ados proiektuarekin, inguru horretan tranbiak nahaste handia ekarriko lukeelako. Oxirondoko azokatik Arrasaterako bidean, bariante azpitik igaroko zen tranbia, eta Lasagabasterreko zubia zeharkatu ondoren, Ertzaintzaren atzetik igaroko litzateke. Bergara Aurrerak landutako alegazioetan ere aukera hori jasotzen da. Martxoaren 18ko osoko bilkuran eztabaida txiki bat izan zen puntu horren gainean Victoriano Gallastegi alkatea eta Jesus Mari Garitano Bako kidearen artean. Ideia hori plazartzan lehenak izatea ezetzatu zion alkateak Garitanori. Gobernu taldeak ere ideia horri hasieratik eutsi diola esan zuen alkateak.

Bestalde, Jaurlaritzaren proiektuan Ibargarain aurreikusten den geltokia Lasagabasterreko zubiaren ondoren kokatzea proposatzen du Udalak. Bergara Aurrerak ere aukera hori landu zuen. Udalak geltokia zubia igaro eta gero (Arrasatera bidean) kokatzea proposatzen du.

GELTOKIA LABEGARAIETAN

Hasieran baten, Bergaran sei geltoki aurreikusten dira: Amillagan, Matxiategin, Usondon, Ibargarain, Torrekuan eta Zubiaurren.

Osoko bilkuran adostu zenez, Udalak Labegaraietako inguruan beste geltoki bat jartzea eskatuko dio Jaurlaritzari. Inguru horretan kokatzen dira, hain



EDU MENDIBIL

Ibargaraitik eta Zurraderotik igaro beharrean, Udalak lehengo trenbide zaharra erabiltzea planteatzen du.

Ibargaraiko geltokia Lasagabasterreko zubiaren ondora eramatea eskatzen du Udalak

zuzen, industrialdea eta kiroldegia, besteak beste. Horrez gain jende dezente bizi da han. Udalak logikoa ikusten du han beste geltoki bat jartzea. Jaurlaritzak onartuz gero, Ozaeta kaleko 13. zenbakidun eraikinaren eta industrialdera daraman Deba ibaiaren gaineko zubiaren artean egingo litzateke aipatutako geltokia. Bergara

Kiroldegi inguruan, tranbia errepide ondotik igarotzea eskatzen dute Aralarrek eta BAK

Aurrerak ere ideia hori zeukan jasota bere proiektuan.

Era berean, Labegaraietako tartean, kiroldegi ondotik igaro beharrean, tranbia errepide zaharren ondoan igarotzea eskatu du Aralarrek, kiroldegian eta hango bidegorrian ibiltzen den jendeari trabarik ez egiteko eta eremu hori ahal den neurrian errespetatzeko. Era berean, Matxiategiko kanposantuaren ondoan aurreikusten den subestazio elektrikoa Amillagara eramatea planteatzen du Aralarrek.

Bergara Aurrera eta Aralar bat etorri ziren eskaera horiek zirela eta. Bestalde, Jesus Mari Garitanok ilogikotzat jo zuen Jaurlaritzaren proiektuak Arrasateko Ospitalean geltokirik ez aurreikustea. Osoko bilkuran adierazi zenez, "Debagoiendar guztiok ospitale hori erabiltzen dugu, eta ez dauka ez buru eta ez hanka han geltokirik ez egoteak".

Erakusketa udaletxean, hilaren 15era arte

Tranbiaren proiektuaren gaineko erakusketa ikusgai dago udaletxeko soko bilkuren aretoan. Erakusketa apirilaren 15era arte izango da zabalik. Hainbat panelen bitartez proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko aukera dago.

Lanak noiz hasiko dituzten zehazteke badago ere, Debagoieneko tranbiak 110 milioi euro inguruko aurrekontua izango luke Jaurlaritzako iturrien arabera. Proiektuaren lehenbiziko fasea Aretxaba-

leta eta Bergara artekoa izango da, 17,5 km-ko ibilbidearekin. Tranbiak 33,6 minutu beharko ditu tarte hori egiteko.

Erakusketan, geltokien panelak, Elorregiko tartearena eta ibilbide orokorrenak ikusgai daude. Erakusketaren ordutegia honako hau da: aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik osoko bilkuren aretoan. Zapatuetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara.

HIRIGINTZA/ Eraikin osoaren jabegoa eskuratu ondoren ekin ahal izan dio Udalak eraikina botatzeko proiektuari

Zubieta kaleko lehen zenbakiko eraikina bota egin dute, errepidea zabaltze aldera

E.M.

Zubieta kaleko lehen zenbakiko eraikina bertan behera botatzeko lanak hasi zituzten eguaztenean. Puntu horretan errepidea zabaltze aldera, aspaldiko egitasmoari ekin dio Bergarako Udalak.

Azkoiber SL enpresaren izenean Jesus Arregik eta Udalaren izenean Victoriano Gallastegi alkateak sinatu zuten eraikina botatzeko akordioa eguazten goizean. Bezperan, martitzenean, udalbatzak aho batez onartu zuten proiektua.

Udalaren aginduz, Sestra enpresa 2001. urtean hasi zen Bideberri-Zubieta inguruko garapen proiektua lantzen. Zubieta kaleko lehen zenbakia ordenaziotik kanpo zegoen.

Azken urteotan eraikina botatzeko lanak geldirik egon dira, akordio hau heldu arte. Azkoiberrek Zubietako lehen zenbakiko ezkerreko baxua eta 1.B etxebizitzaren jabegoa lortu ondoren, bota ahal izan dute eraikina. Uda-

lak eraikin osoaren jabegoa eskuratu du lanei ekin ahal izateko eta horren ordainetan Azkoiberri 9 garaje emango dizkio Udalak.

Udalak emandako datuen arabera, Azkoiberrek 147.500 euroko ekarpena egin du proiektu honetan: 72.500 euro lokalagatik, 60.000 euro Zubietako 1.B etxebizitzagatik eta 15.000 euro lanengatik. Masterreka 23an Azkoiberrek egiten diharduen etxebizitzak dezenteko hobekuntza izango dute. Esan bezala, Ibargaraiko etxe berrietan egingo dituzten 9 garaje ere eskuratuko ditu Azkoiberrek. Eguazteneko sinatze-ekitaldian, alkateak eskerrak eman zizkion Jesus Arregiri euren kolaboraziogatik.

*Bergarako Udala
2001. urtean hasi
zen Bideberri-
Zubietako garapen
proiektua lantzen*



Zubieta kaleko lehen zenbakia bota ondoren, errepidea zabalduko dute puntu horretan.



Aparkalekuaren lekuan, etxeak

Udalak aditzera eman duenez, datorren astean hasiko dituzte Ibargaraiko etxe berriak eraikitze lanak. Gaur egun aparkalekua dagoen tokian 48 etxebizitza eraikiko ditu Sukia enpresak, bi bloketan banatuta.

Lanak direla eta, orain arte aparkaleku modura erabili izan den lursaila itxita izango da astelehenetik aurrera. Udaltzaingoak astelehenetan 08:00etatik aurrera autorik ezin izan dela egon jakinarazten die herritarrei.

LABUR

Turismo Bulegoa apirilaren 17ra arte zabalik, bisita gidatuak egiteko aukerarekin

Turismo Bulegoa apirilaren 17ra arte dago zabalik. Ordutegia honako hau da: astelehenetik zapatara 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era; domeketan 11:30etik 14:30era. Hilaren 10ean itxita izango da. Bisita gidatuak antolatzen dituzte. Argibideak: 943 77 91 20.

Bandaren kontzertua domekan eta Musika Astea apirilaren 18tik aurrera

Bergarako Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, apirilaren 10ean, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Aurretik, kalejira egingo dute Bandako kideek.

Bestalde, Musika Eskolak eta Udalak *Musika Astea* antolatu dute apirilaren 18tik 25era bitarteko asterako. Musika Eskolako ikasleez gain, Eibarko Usartza Txistu Taldeak edota Sorluzeko Gazteen Bandak hartuko dute parte. Egunero izango dira musika emanaldiak, Musika Eskolan, Sierbetan, Udaletzeko osoko bilkuren aretoan edota herriko kaleetan.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35



margolan
m a r g o a k

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidrieren margolanak
- ▶ Imitazioak

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

JAIK/ Zezen-plaza kokatzeko lekurik ez dagoela argudiatu du Udalak

Pazkoetarako ez dute ez zezenketarik ez entzierrorik antolatuko

E.M.

Bergarako Zezen Zaleak taldeak ez du aurtengo Pazkoetan zezen festarik antolatuko. Udala eta Zezen Zaleak ez dira akordio batera iritsi zezenketa, entzierrorik eta bestelako zezen festak egin ahal izateko zezen-plazarendako leku aproposa bilatzeko orduan. Hain zuzen ere, hurrengo astean hasiko dituzte Ibargarain etxe berriak eraikitze lanak, azken urteotan zezen-plaza jarri izan den tokian hain justu. Egoera horren aurrean, Zezen Zaleak taldeak zezen-plaza Seminarioan kokatzeko proposamena egin zuen. Udalak ezezkoa eman zuen, Seminario-

ko patioa ez delako Udalarena. Gauzak horrela, azken urteotan ohikoak bihurtu diren zezenketa eta bestelako zezen festak jaitik kanpo geratuko dira. Denbora luzean zezenketarik gabe egon ostean, herriko zale batzuek zezenketa antolatu zuten

**Zezenzaleek
Seminarioan egitea
proposatu zuten,
baina ezezkoa eman
zieten**

1992an. Polemika dezente sortu zuen orduan. Harrezkero ez du hutsik egin Pazkoetan.


Iñigo Almortza Zezen Zaleak elkarteko kideak zera adierazi digu: "Aurten, zezenketaren ordean, *rodeo*a egitea planteatu genion Udalari, baina ez dugu polemikatan hasterik nahi. Ordaindutako ikuskizunetatik, arrakasta gehien zutenak zezen festak ziren, plaza betetzen zen behin baino gehiagotan. Itxura ez dute hori aintzakotzat hartu".

Iaz, zezen festak antolatzeko Udalak 18.000 euroko dirulaguntza eman zuen. Gainerakoa (27.000 euro) Zezen Zaleak elkarteak ordaindu zuen.



1992a ezkeror urtero antolatu dute zezenketa Pazkoetan.

ARTIBOIA



Aritzetakoak Extremaduran eta Portugalen ibili dira Aste Santuan

Aritzeta abesbatzako lagunak Extremadura eta Portugal aldean ibili dira Aste Santuan. Bi emaldi egin dituzte, bata Azeitaon (Portugal) eta bestea Montijon. Juanjo Arrieta zinegotziak ordezkatu zuen Bergarako Udala han. Imanol Urtzelai eta Larraitx Agirreren zuzendaritzapean, Aritzetakoek hemengo jantzi tipikoekin abestu zuten eta Montijoko abesbatzarekin batera *Agur jaunak* abestu zuten. Argazkian, irteeran parte hartu zuen taldea.

LABUR

Bergarako Emakume Kultur Elkarteak makillaje ikastaroa antolatu du

Bergarako Emakume Kultur Elkarteak antolatuta, makillaje ikastaroa izango da apirilaren 19an, 21ean, 26an eta 28an. Saio bakoitzak bi orduko iraupena izango du, 15:00etatik 17:00etara.

Izenematea (12 euro) zabalik dago. Interesatuak BEKEk Irizar jauregian duen lokalera edota 943 76 07 95 zenbakira jo dezakete.

Odol ateratzea egingo dute eguaztenean Seminarioko lokalean, ohiko ordutegian

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, eguaztenean, apirilaren 13an, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera.

Apirilean bi odol ateratze egingo dituzte, hurrengo asteakoa eta hilaren 27koa. Odol Emaileen Elkarteak dei egiten die emaleei odol ateratzeotan parte hartzeko.

1927an, 1937an eta 1952an jaiotako bergararren ospakizunak apirilaren 23an

Apirilaren 23an hiru *kintada* ospatuko dira Bergaran. 1927an jaiotakoek Zumelaga jatetxean egingo dute bazkaria (izenematea, 15 euro, Euskadiko Kutxan egin daiteke); 1937an jaiotakoak Txarrantxa jatetxean elkartuko dira afaltzeko (izenematea, 20 euro, Kortazar tabernan); eta, azkenik, 1952an jaiotakoek Errekin afalduko dute, 21:30ean (izenematea, 10 euro, Errekin bertan).

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



Musika eta
liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

PILOTA

Bergara Hiria Txapelketaren 10. ekitaldia abian da martitzena ezkerro


Pazkoak bitartean martitzenero partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, amateur zein 22 urtetik azpikoen mailetan

EDU MENDIBIL

Bergara Hiria Txapelketaren lehenbiziko partiduak jokatu ziren martitzenean. Amateur mailan, Aranzeta-Arruti eta Lopez Aldai-Tejero bikoteek aurrera egin zuten. Pazkoak bitartean martitzenero partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean.

Aranzetak eta Arrutik Baez-Jauregi bikotea mendean hartu zuten martitzenean, 22-10. Lopez Aldaik eta Tejerok, berriz, 22-8 irabazi zioten Matute eta Gomezek osatutako bikoteari.

Esan bezala, Pazkoak bitartean, martitzenero bi partidu jokatu dira, 19:30ean hasita. Hurrengo astean, 22 urtetik azpikoen mailan, Larrañaga-Galarra eta Fraile-De la Cruz bikoteak izango dira aurrez aurre; amateur mailan, Erroizeneak eta Argotek (iazko txapeldunek) Abad-Okiñena bikotearen kontra jokatu dute. Amateur mailan bi bergarar arituko dira:



Lopez Aldaik eta Tejerok 22-8 irabazi zieten Matuteri eta Gomezzi martitzenean jokatuako bigarren partiduan.

Ander Muguruzak Mendizabal hernaniarrarekin batera jokatu du eta Igor Gutierrez Lasa urretxuarrarekin arituko da.

DOMEKAN, PROFESIONALAK
Profesional mailako jaialdia izango da domekan Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Buruz buruko txapel-

ketaren barruan Gonzalez eta Koka izango dira aurrez aurre. Irabazleak Barriola izango du aurrean hurrengo kanporaketan.

KIROLDEGIA

Skate pista egiteko lanak martxan Labegaraietan

Dagoeneko hasi dituzte Labegaraietako kiroldegia ondoan skate pista egiteko lanak. Kiroldegia kanpoaldeko berdegunean jarriko dute patinean ibiltzeko pista. Lanen aurrekontua 47.725 euro da eta lanak Donostiako Tip-Top enpresari adjudikatu dizkio Udalak. Skate pista gaztetxo eta gazteen aspaldiko eskaera izan da.

ESKUBALOA

Lau partidu asteburuan kiroldegian

Bergara KEko eskubaloitaldeek etxean jokatu dute asteburuan: zapatuan, gazte mailako neskek Arrateren aurka jokatu dute, 16:00etan. Ondoren, Euskadiko Ligan ari den Bergarako taldeak Elgoibar hartuko du, 17:45ean. Domekan, berriz, kadete mailako mutilek Elgoibarren aurka jokatu dute, 10:30ean, eta bigarren senior mailako taldeak Aloña Mendiren aurka jokatu du, 12:15ean hasita.

Gaztetxoen mailako lau partidu Ipintzan

E.M.

Aste bukaeran lau futbol partidu jokatu dira Ipintzan. Aitor Gorosabelek zuzentzen duen bigarren kadete mailako taldeak Eibartarrak taldea hartuko du zapatuan, 11:00etan. Arratsaldean, berriz, beste bi partidu izango dira: ohorezko kadete mailan, Karlos Gorrotxategik zuzendutako mutilek Hernaniren aurka jokatu dute, 16:00etan. Jarraian, futbol-8ko nesken taldeak Dunboa izango du bisitari, 18:00etan. Mikel Fernandez da bergararren entrenatzailea.

Bestalde, domekan, alebin mailako taldeak Añorgaren aurka neurtuko ditu indarrak. Par-

tidua Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian jokatu da, 10:00etan. Julen Hurtadoren taldea denboraldi ona egiten ari da. Hala ere, bergarar gaztetxoek aurkari zaila izango dute domekan.

TALDE NAGUSIA, IRUNEN

Preferente mailako taldeak garrantzi handiko partidua irabazi zuen zapatuan, Agorrosinen. Bergara 1-0 nagusitu zitzaion Trintxerperi, Alejandrok sartutako gol bati esker. Mahoneroak sailkapeneko azken aurreko tokian dira orain. Zapatuan Real Union B taldearen aurka jokatu dute Irungo Gal futbol zelaian, 15:30ean. Irundarrak sailkapeneko laugarren tokian dira.



Ohorezko kadete mailako taldeak Hernaniren aurka jokatu du zapatuan.

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Fac-Egurre Pirulotar.
10:30: All Blacks-Pirulotarrak Egurre

ZAPATUAN, KANPOAN


11:30: Bayer-Mongatxurak Niu Tim
12:30: Niu Tim-Belengua Mongatx.
16:00: Cosa Nostra-A Ze Fla. Brescia
17:00: Brescia-A Ze Flaxa Cosa Nos
18:00: Errotagaiñ-Pagomendi. Brescia
19:00: Kalaveras-Ganbara Belengua

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: PDS-Txipiron Ganbara
10:30: Ganbara-KMP PDS
11:30: KMP-Fac Irubide
12:30: Irubide-Bayer Fac
17:00: Niu Tim-SDTNT Agirrebe.
19:00: De Resaka-Agirrebeña. All Blacks

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Belengua-SDTNT. Fit Auto.
17:00: Fit Automoto-Cosa Nostra. Belengua
18:00: Errotagain-Agirrebeña. Cosa Nos.
19:00: Egurre-Komando Pipe Errotagain
20:00: All Blacks-Canalejas. Egurre



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ZINEA/ Novedades aretoa itxi zuten Aste Santu ostean

Zine aretorik gabe geratu da Bergara

EDU MENDIBIL

Bergaran ez da zine emanaldirik izango oraingo aste bukaeran. Azken urteotan kolokan egon ondoren, Novedades aretoa itxi zuten Aste Santu ostean. Urte batzuetatik hona gainbeheran egon da zinea eta badirudi oraingoan behin betiko itxiera iritsi dela.

Josean Azkarate Askasua Novedades zine aretoko kudeatzaileak ez du nahi izan zinea itxeko arrazoirik azaltzea: "Denok dakizue zeintzuk izan diren itxeko arrazoiak. Zinea itxita dago, bai. Ez dugu berriz zabalduko".

Azken bi urteotan udaberri irailera bitartean itxita egon da Novedades aretoa. Oraingoan badirudi irailean ere ez dutela zabalduko. Zineak gainbehera egin du nabarmen azkenaldian:

Novedadeseko arduradunak behin baino gehiagotan kexatu izan dira ikusle kopuruaren murrizteaz. Lokala pribatua da eta kudeatzaileek alokatuta zeukaten. Neurri handi batean, udal laguntzei esker egin izan du aurrea Novedades aretoak azken urteotan. Bergarako Udalak dirulaguntza eman die kudeatzaileei aste bukaerako zine emanaldiak eta eguenetako zine-klube ko programazioa antolatzeagatik. Bestalde, Udalak ere erabili

izan du aretoa hainbat ikuskizunetarako, antzerkia nagusiki. Urtero, 25 emanaldi antolatzeke eskubidea zuen Udalak. Horieta-ko emanaldi bakoitzarengatik lokalaren alokatzea ordaintzen zuen Udalak.

Bergaran garai baten hiru zine areto egon ziren: Cinema (gaur Burdiñateko etxeak dauden tokian), Irala eta Novedades. Irala 1980ko hamarkadaren erdian itxi zuten eta Novedades izan da ordutik areto bakarra.

Entre copas izan da Novedades aretoan eskaini duten azken filma, joan den martxoaren 29an.

Novedadeseko lokala pribatua da eta zineko kudeatzaileek alokatuta zeukaten Udalaren laguntzaz

BI ZINE ARETO DEBAGOIENEAN

Novedades aretoa itxi ondoren, Debagoienean bi zine areto geratzen dira orain: Amaia antzokia Arrasaten, eta Oñatiko Santa Marina plazan dagoena, hango Udalak kudeatzen duena.



Oraingoan badirudi ez dituztela Novedadeseko atea berriz irekiko.

Bergara Hiria Argazki Lehiaketaren 21. ekitaldia deitu du Pol-Polek

E.M.

Bergara Hiria argazki lehiaketa deitu du Pol-Pol argazki taldeak, Udalaren laguntzarekin. Ohikoa denez, zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira maiatzaren 4ra bitartean.

SARI UGARI

Euskal Herriko edozein argazkizalek parte hartu ahal izango du lehiaketan. Kategoria bakoitzeko onenak 180 euro eskuratuko ditu eta bigarren (150 euro) eta hirugarren sariak (120 euro) ere banatuko dituzte. Era berean, herriko onenak 90 euro eta trofeoa jasoko ditu, koloretako zein zuri-beltzeko kategorietan. Saridun guztiek Santi Arrietaren argitaratu gabeko zeramika lan bana jasoko dute garaikur moduan.



JOAQUIN VARA

Aurreko ekitaldian saritutako lanetako bat.

Gaia, teknika eta prozedura libreak dira. Kategoria bakoitzean, gehienez, lau argazki aurkez daitezke, eta derrigorrezkoa da

30x40 cm-ko kartulinatan aurkeztea. Lan onenekin erakusketa egingo da maiatzean. Argibide gehiago 943 76 30 90 telefonoan.

KULTURAPILULAK

Perkusio afrikarreko ikastaroa apirilaren 22tik aurrera, Jardun elkartearen eskutik

Jarduneko gazte taldeak perkusio afrikarreko ikastaroa antolatu du. Hiru saio egingo dituzte, apirilaren 22an eta 29an eta maiatzaren 6an, Arrizuriagan, 18:30etik 20:30era. Izena emateko epea apirilaren 18ra arte zabalik. Argibideak 943 76 36 61 zenbakian.

'Lezio berri bat ostrukari buruz' izenburuko antzezlan gaur gauean Zabalotegin

Ez dok hiru Bikoteatro taldearen *Lezio berri bat ostrukari buruz* antzezlan izango da gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Bernardo Atxagaren izen bereko ipuinean oinarritua dago eta Mikel Martinez eta Patxo Telleria dira aktoreak.

Hip-hop jaialdiak gaur eta bihar, zapatua, Jam aretoan, hainbat talderen eskutik

Gaur, egubakoitza, Violadores del Verso, Tote King, Selektia Kolektiboa, La Familia, El Pata DJa arituko dira Jamen. Bihar, zapatua, Arianna Puella, Frank T, Hablando En Plata eta Kiki Sound DJa. Bi egunetan 21:00etan hasiko da emanaldia.

CLINICA DENTAL BERGARA



FINANTZAKETA:
3 HILABETE ETA 5 URTE ARTEKOA

- Odontologia orokorra
- Inplanteak
- Protesiak
- Hortz-estetika
- Periodontzia

ASEGURUAK

Ipresa	La Previsora
Sanitas	Aegón
DKV/Previasa	Asepeyo
Asisa	Fraternidad
Azkaran	Fremap
Previsora Bilbaina	Adeslas
Pakea	Allianz
Grupo Eroski	

E, TXO!

'GOMENDATZEN DIZUT...'

SARIA ORAINDIK MARTXAN

Gaszte Informazio Bulego-koak oporretako gomendioen bila dabiltza.

Jendeak ezagututako leku berri, ostatu interesgarri, eraikin, txoko... norberak nahi duena gomendatzeko aukera du. Gomendioak jasotzeko epea apirilaren 22an amaituko da eta Gaszte Informazio Bulegora bertara eraman beharko dira (Errotalde jauregia) edo e-posta bidez bidali honako helbidera:

gzerbitzua@euskalnet.net.

Parte-hartzaile guztien artean baserri turismoko etxe batean asteburuko egonaldia zozkatuko dute.

JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA ORERETAN

Oreretako Udalak jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Lanak koloretan aurkeztu beharko dira 40x55 neurriko zurezko xafra baten gainean. Teknika libre izango da, baina testu jakin bat izan beharko dute kartelek: Madalenak 2005. Lanak maiatzaren 13a baino lehen aurkeztu behar dira Oreretako udaletxean. Irabazleak 910 euroko saria jasoko du.

FRANTZIAN IKASKETAK EGITEKO BEKAK

La Caixa Fundazioak diru laguntzak emango dizkie lizentziadun eta goimailako tituludunei graduatu ondoko ikasketak egiteko. Ikasketok Frantziako unibertsitate edo goimailako ikasketa zentroetan egin beharko dira 2005-2006 ikasturtean hasita. Eskararak aurkezteko azken eguna maiatzaren 13a da. Informazio gehiago helbide honetan eskuratu daiteke: www.estudios.lacaixa.es.

GUREGAIK/ FORU ALDUNDIAREN OPORRALDI PROGRAMA

Oporretan abentura eta hizkuntza jarduerak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Foru Aldundiak Oporraldi programa antolatu du. Programa hauetan izena eman nahi dutenek Gazte Informazio Gunera jo beharko dute, ondoren zozketan parte hartzeko.

Gaszte Oporraldi programan 14 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek har dezakete parte.

Izema emateko Gaszte Informazio Bulegora edo Kultura Zerbitzura (Errotalde jauregia) jo beharko dute gazteek apirilaren 19tik 29ra bitartean. Goizez 11:00etatik 13:00etara egongo da irekita eta arratsaldez 17:00etatik 19:00etara.

Internet bidez ere egin daiteke izen-ematea www.gipuzkoa.net/oporraldi helbidean.

Behin izena eman ostean, maiatzaren 10ean zozketa egingo dute, programan zeinek parte hartuko duen erabakitzeko.

EUSKARAZ

Espainiako hainbat txokotan eta baita Euskal Herrian bertan ere abenturako ekintzak egiteko aukera izango dute gazteek uztailan eta abuztuan.

Bestalde, Seguran eta Nafarroako Beintze-Labaien hizkuntzak ikasteko aukera izango da programa hauen bidez.

Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena, eta ondoren zozketaren zain egon.



Besteak beste, abentura kirolak egiteko aukera eskaintzen du Oporraldi programak.

LOTSABARIK/ Beñat Iñarra

"Pozik bizitzeari ematen diot lehentasuna"

IRATI AGIRREAZALDEGI

Beñat Iñarra galderei erantzuteko prest azaldu zen, zalantzarik egin gabe. Pozik bizi omen da, edo horri ematen dio behintzat lehentasuna bizitzan; lagunekin batera Jamaikara joatea nahiko luke Beñatek.

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Badago zer aldatua. Gazteendako kultura ekintza gehiago antolatuko nituzke, esaterako.

• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?

Euskal Herriaren gaineko pegatinak. Euskarari eta presoei buruzkoak.

• Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Gran Hermano eta antzerakoak gorroto ditut. Kirol saioak, berriz, gustatzen zaizkit.

• Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?

Bushen eta Aznarren politika higuinagarria iruditzen zait. Gustuko, berriz, Ruben Beloki, pilota-zalea naiz eta.

• Zerk amorratzen zaitu?

Hipokrisiak.

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Edozein unetan edonori laguntzeko prest egotea.

• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Pozik bizitzeari.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Bertutea besteek esan beharokukete. Akatsa, berriz, burugorria naizela.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Batzuek behintzat ez dugu ligatzen.

• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?

Idealik ez daukat. Pertsona bakoitzak bere gauza onak ditu.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

Jamaikara lagunekin. Ska musika gustuko dut eta bertan sortutakoa da.


• Etorkizunerako amets bat?

Euskal Herri euskaldun eta askea ezagutzea.



ADINA: 20 urte • **IKASKETAK:** Ingeniaritza • **ZALETASUNAK:** Musika eta pilota • **LIBURU BAT:** 110. streeteko geltokia • **FILM BAT:** American History X • **MUSIKA TALDEA:** Kortatu • **KIROL TALDEA:** Euskal selekzioa

TIRABIRAKA/ Bittor Rodriguez



MINGAINARITIRAKA



Martin Begiristain

UREDERRA ITURGINTZAKOIA

Martinek iturgin lanean 32 urte daramatzen arren, bi urte besterik ez da Urederra iturgintza enpresa zabaldu zuela. Bergararra da Martin, baina ama nafarra du, eta hortik dator kio bere izena enpresari.

Urederra erreka ederra da, baina, zelatan jarri zenion izen hori enpresari?

Nire ama Bakedanokoa (Nafarroa) da, Urederra erreka jaiotzen den herrikoa; enpresari izen bat jarri behar nion, eta horixe iruditu zitzaidan egokiena.

Iturginok eta gremioetakook jendeari itxaron araztearen fama duzue.

Kontua da denera ezin garela segituan iritsi; gainera, jende askok ez du planifikatzen etxean egin nahi dituen lanak. Egitea bururatzen zaion momentuan iturgina prest egotea nahi dute eta hori ezinezkoa da.

Hoditeria baten topatu duzun gauzarik bitxiena?

Hustubide baten untxi baten larrua topatu nuen behin; uraren hoditeria baten, berriz, melokotoi hezurra.

Iturria zabaldu eta zer irtetea gustatuko litzaizuke?

Ura, horretarako da eta iturria. Gainera, gaur egun munduan dagoen ur faltarekin...

Pasatu dugun negu hotzarekin, nahikoa lan izango zenuten. Betiko antzera; gaur egun, dauden berogailu sistemekin, ez da arazo asko sortzen. Dena dela, baserri baten, izotzarekin, hoditeria bat lehertu zen.

Iturgin moduan, emango zeniguke aholkuren bat?

Garbigailuetan xaboa neurritz erabiltzea, hustubideetatik oliorik ez botatzea eta harrikoa egiten bukatzerakoan pixka baten ur beroa zabaltzea kontuan hartzekoak dira.

Bizitzeko toki bat?

Bergara; ez dago herria bezalakorik bizi izateko.

Eta oporretarako?

Edozein toki; dena dela, bero handia ez zait gustatzen.

Aste Santuan non ibili zara?

Jacan egon naiz, eskiatzen, txikiteoan eta atsedean hartzen.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Motorrean ibiltzea.

Bukatzeke, amets bat?

Zahartzarora osasuntsu iristea, disfrutatu ahal izateko.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

JON SANCHEZ

22 URTE / IKASLEA / TOLOSA (FRANTZIA)

“Bizitasun handiko hiria da Tolosa, eta ikasle asko izateak badu zerikusirik horretan”

AINZANE IRIZAR

I azko irailean joan zen Jon Sanchez bergarar gaztea Frantziako Tolosara bizi izatera. “Ingeniaritzako ikasketak egin nituen Arrasaten, eta Goi Mailako Ingeniaritzako ikasketak egitera etorri nintzen Tolosara”, azaldu digu Jonek. Bi ikasurte egin beharko ditu hantxe.

Hainbat aukera zituen: Suitzara, Kanadara edo Frantziara joateko aukera zuen, baina, azkenean, Frantziako Tolosa aukeratu zuen. “Etxetik gertuen zegoen tokia aukeratu nuen”, diosku. Bergararik Tolosara lau orduko ibilbidea dago, eta sarri etortzen da etxera. “Sei astean behin, astebeteko oporraldia izaten dugu, eta irailetik hona sarritan joan naiz etxera”, azaldu digu.

Gustura dago Jon Tolosan; etxe baten bizi da, beste bi euskaldunekin batera. Euretako bat, gainera, ibarrekoa da, eskoriatzara, hain zuzen ere. Jonek azaldu digunez, aurtan sekula baino ikasle gehiago joan dira Arrasatetik Tolosara ikastera;

“Sei astean behin, astebeteko oporrak izaten ditugu, eta sarritan joaten naiz Bergarara”

Arrasaten ikasten ibilitako hogeitabat lagunak dihardute hantxe.


Tolosak 700.000 biztanle inguru ditu, baina horietatik ia 200.000 ikasleak dira; gauzak horrela, Jonek kontatu digu giro oso ona egoten dela. “Bizitasun handiko hiria da, eta ikasleok ere badugu zerikusirik horretan”, diosku Jonek.

Egunero zortzi orduz izaten ditu eskolak Jonek, baina kalera irteteko astia ere hartzen du: “Batez ere, asteburuetan irteten gara; norbaiten etxean elkartzen gara eta gauerdi aldera irteten gara kalera. Hiruzpalau taberna daude; baina diskoteka eta pub mordo dago”.

Frantziarren izaeraren gainean galdetuta, zera adierazi digu: “Ezberdinak dira, oso ezberdinak; ikasleak, esaterako, bakarrik bizi dira, ez dute hiruzpalau ikasleren artean etxebizitza bat errentan hartzen. Gainera, hemengo gazte gehienek ez dute koadrilarik euskaldunok bezala; irtetekotan, eskolako lagunekin irteten dira”.

Tolosa hiriaren gainean, berriz, zera kontatu digu: “hiri oso polita da, eta inguruak ere ederak dira; Airbus enpresa hemen dago eta ia hiri osoa horri esker bizi da”. Hainbat asteburutan irteerak ere egiten dituzte: Pirinioetara, esaterako, joan izan dira, eskiatzera; Tolosatik bi ordu daude Pirinioak.

Etorkizunaren gainean galdetuta, gauzak argi dituela erakutsi digu Jonek: “Oso gustura nago hemen ikasten, toki, bizi-modu eta jende ezberdin asko ezagutzeko aukera ematen dit hemen ikasteak, baina, hurrengo urtean, ikasketak amaitzen ditudanean, Euskal Herrira itzultzeko asmoa dut”.



ZUHAIZTI
taberna

Eguneko menuak!

Astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

Ze bi kaletan
daude atari
hauek?



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EDITH MIOTArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Edith!

Galderaren erantzun zuzena: Bonofotoa: **San Bizente**. Galde debalde: **1-B, 2-C, 3-A**.



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Coca-Cola

Bi litroko botila.

1,19 €

198 pezeta
Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

Amillagako eskolan

Ondoko argazkia 1920. urte ingurukoa da. Amillagako eskolako ikasle taldea agertzen da bertan. Zapaterikua taberna parean ateratako erretratu da. Amillagako gasolindegia inguruan zegoen Zapaterikua.

Ezkerretik eskumara, goian: Amillagako Andresa Bikuña, Agarre Buñaoko Hermenegildo Olabarria, Kanposko Julian, Gillingo Luxio Elkoror, Amillaga Etxeberriko Marcelino Garmendia, Zubiko Jose Elkorobezibar, Arizmendiko Angel Madariaga, Albitxuko Miguel, Beistegi Gueneko Prudencio Belategi, Anguakoa, Albitxuko Felix Maiztegi, Miekako Antonio Alberdi, Etxeberrieta Azpiko Andres Arruti eta Arizmendiko Pedro Madariaga.

Beherago: Zubiko Jesus Elkorobezibar, Beitziko Jose, Kanposko Julian, Basarteko Cipriano Aiastui, Baldomera maistria, Muñondo Gaineko Jose Maiztegi, Errota Goiko Kruz Azkarate, Jauregiko Julian Gantxegi, ezezaguna, Olaisako Esteban, Amillaga Etxeberriko



Felix Garmendia eta Ziarretako Eduardo Gabilondo.

Hirugarren lerroan: Muñondo Azpiko Maria Urriategi, Larraña Txikiko Pantxika Igartua, Azpilletako Josepa Unamuno, ezezaguna, ezezaguna, Olaisako Angeles, San Josepeko Dolores, Basarteko Ines Aiastui, Ziarretako Faustina Gabilondo, Olaisako Bitxori, Munabeko Isabel Barrenetxea Arando, Mugertzako Jesus eta Margarita Barrenetxea Arando.

Bigarren lerroan: Azpilletakua, Mugartzako Emiliana eta Juliana, Arimendiko Pilar Madariaga, Pantxika eta Juanita Gallastegi, Mou Azpiko Celestina Oteiza, Zubitzako Serafina, San Faustoko Sebastiana Olabe, Santalaitz Txikiko Primitiva Azkarate, Zubitzako Gregori, Beisteiko Bitxori Lizarralde, Albitxuko Pilar Belategi, Mugartzako Martina Barrenetxea Arando, Idurisoko Maria Arregi eta Amillaga Etxeberriko Margarita Garmendia.

Aurrean: Kanposko Markos, Etxeberria Azpiko Dionisio Arruti, Mugartzako Sabino, Mou Azpiko Maria Oteiza, Agarre Buñaoko Josepa Olabarria, Zabalekoa, San Faustoko Luis Olabe, Zubitzako Elixabet eta Patxi, Jauregiko Roman Gantxegi, Muñondo Azpiko Nikolasa Urriategi, Ziarretako Benigno Gabilondo, ezezaguna eta Muñondo Azpiko Placido Urriategi.

Argazkia: Sabin Lonbide

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 8**
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- ZAPATUA, 9**
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05
- DOMEKA, 10**
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 11**
ESTELA. Matxiategi 5 . . 943 76 19 63
- MARTITZENA, 12**
MOZOS. Iparragirre 2. . . 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 13**
CAMACHO. Oxirondo 4. . . 943 76 11 74
- EGUENA, 14**
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa . . 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean.

URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatebidea.
- Labegaraieta/Olabarretik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiurre, Martoko, San Antonio, Espolada (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Novedades aretoa itxi egin dute. Falta sumatuko duzu?



MARI CARMEN GARITANO

Lehen astero joaten nintzen, baina urteak dira zinemara ez naizela joan. Hala ere, ixtea gaizki iruditzen zait. Zegoen moduan egonda ere ez zegoen egoki. Beste era batean balego jende gehiago joango litzateke.



MARIA PILAR GARCIA

Pena ematen dit Novedades ixteak. Ez naiz askotan joaten, baina zinema gustuko dut. Inoiz kanpora joaten zait. Inoiz zinemara, eta orain, herrian izan ezean filmak ikustekotan kanpora joan beharko dut.



JOSELU CID

Gaizki iruditzen zait zinema aretoa ixtea. Gustuko dut zinema, eta Gasteizera joaten naiz gehienetan. Baina horrelako herri batean zinema ikusteko aukera kentzea ez dago ongi, batez ere zinemazaleendako.



IÑIGO GOMEZ

Faltarik ez dut sumatuko, orain dela asko ez bainaiz joan filmak ikustera Bergarako aretora. Inoiz Donostian joan izan naiz, baina ez bereziki gustuko dudalako, denbora pasatze aldera baizik.



MANOLO GARCÉS


Ez naiz zinemazalea, beraz, ez dut aretoaren faltarik bereziki somatuko. Hala ere, egon beharko litzateke zinema areto bat. Novedadesen egin izan diren beste ekitaldi batzuetara joan izan naiz.



JOSEBA PRAT


Oso gaizki iruditzen zait Novedades ixtea. Ea Udalak laguntzaren bat ematen duen eta berriz zabalitzen duten. Beste gauza batzuetarako erabiltzen den dirua kulturara bideratu behar lukete.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KATABIA ZIKIN Emakume batek deitu digu esanez, Katabia oso zikin egoten dela. "Aste bukaeretan gazteak edatera joaten dira bertara eta botilak han uzten dituzte. Bestalde, eskekoak ere egoten dira sarritan eta koltxoak, plastikoak, zaborrak... lagatzen dituzte botata. Udalak eta Elizak ez dute ezer egiten garbi mantentzeko". //A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



— Goiz guztia litxarreriak jaten, da ion eztauka bazkaltzeko goseik.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

Demokraziaren kalitatea dago jokoan hauteskundeetan. Gogoratu behar da ezker abertzalearen zati

handi bat kanpora geratzeaz gain, etorkin asko boto eskubiderik gabe daudela, batez ere Europako Batasuneako ez direnak. Bestalde, Estatuaren eta Konstituzioaren erreforma noraino joan daitezkeen ere jokoan dago. Eta azkenik, eguneroko bizitzan eragiten duten gaiak nola kudeatuko diren ere badago jokoan: etxebizitza, garraioa... Gizartea bitan banatzen duen bloke hori ez da askorik aldatuko, abertzale eta ez abertzaleen bloke, hain zuzen. Gai horri aurre egiteko, indar politiko guztien arteko akordio zabala behar da"

AGUSTIN UNZURRUNZAGA /
SOS Arrazakeria
'Berria'/05-04-02

BERAIEKDIÑO/ Andres Osa



Joan Paulo II.a

Egungo komunikabideen esparrua ongi probestu duen gizonezkoa da. Berekin probestu diren bitartekoak umezurtz gelditu dira. Gizon honek gauza batzuk ongi egingo zituen, balore batzuk babestu, baina orokorrean, argia baino iluna gehiago ikusten da. Beste ezer baino lehen esan, Joan XXIII.ak elizari markatu zion demokrazia puntua baztertuta gelditu dela.

Poloniarra izanik, sobietarren erregimena erortzen lagundu zuen Aita "zaindua" izan da. Joan XXIII.a hil zenean, konklabean espiritu santuak lana egin zuen baina CIA ere ez zen urrutiti ibiliko. Bere eraginak zerikusia izan zuen, aipatu erregimena desegiteko. Aurrekoak, Vatikanoko zerbitzu sekretuak desegin zituen, Karol Wojtylak kargua hartu bezain laster berregin eta indartsu jarri. Zertarako? Garai horretan eta gero ere Reaganekin uztarteketa bikaina egin zuen.

Joan Paulo II.aren agintaldiaren elizak sekulako atzerapena

izan du. Joan XXIII.ak lortu zuen sinesgarritasuna hankaz gora jarri da. Zelibatoaren defentsa numantina, pedofilia eskandaluak, elizaren apaiz krisia... Antisorgailuen debekua eta hiesaren hedapena, biztanleriaren hazkunde desorekatua, pobrezia etabarretan ere badu zerikusirik

"Joan XXIII.ak elizari markatu zion demokrazia puntua baztertuta gelditu da"

Joan Paulo II.ak barreiatu duen mezuak. Emakumearen diskriminazioa etabar. Krisi sakona sortu du eliza barruan eta kanpoan. Askapenaren teologia zapuztu zuen. Eliza aldaezina, lotuegia eta malgutasunik gabea finkatu du.

Joan XXIII.arenekin, elizak, ebanjelioan oinarrituz eta bere ardatzean, ateak eta leihoak zabaltzen zituen. Joan Paulo II.ak, bidaia asko egin badu ere, ate eta leiho horiek itxi eta barrua antzutu egin duela esan daiteke. Elizak daraman gain-behera gelditu eta gorantz bidea hartu nahi badu, aldaketak, era guztietakoak, ebanjeliora itzuliz, eman beharko ditu Vatikanoko aulkian jazarriko den agintari berriak.

HAUGIROA!

MINIMOA	4 °C		
Eguaztena, 30			
MAXIMOA	24 °C		
Eguena, 1			
ASTEKO EURIA (l/m ²)	4,6 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 30	16 °C	4 °C	2,3 l/m ²
Eguena, 31	20 °C	4 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 1	24 °C	4 °C	0,2 l/m ²
Zapatua, 2	16 °C	12 °C	- l/m ²
Domeka, 3	20 °C	8 °C	- l/m ²
Astelehena, 4	21 °C	6 °C	2,1 l/m ²
Martitzena, 5	20 °C	11 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larranaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a / 238. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Herriak parte hartzea eskatzeko, 543 sinadura


AINTZANE IRIZAR

Beheko Auzoko, Eguzki Auzoko eta Sagasti Auzoko bizilagunek 543 sinadura batu dituzte, *Denon artean erabakitze*ko lelopean. Martitzenean, hilak 5, aurkeztu zituzten sinadurok udaletxean eta Udalari eskatu diote batzar bat egitea arazoari irtenbidea emateko.

Udalak hainbat proiektu ditu eskuartean: Sagastiko zelaian Gizarte Etxea eta Kultura Etxea egitea eta Beheko eta Eguzki Auzoen artean 50 etxebizitza eraikitzea. Beheko, Eguzki eta Sagasti auzoetako bizilagun ugari eta hainbat herritar ez daude ados proiektuok; ezta proiektu horien gaineko erabakiak hartzeko eta arauak aldatzeko aurrera eraman den prozesuarekin ere.

Gauzak horrela, urtarrilean sinadurak batzeari ekin zioten; guztira, 543 sinadura batu dituzte. Oraingo astean, martitzenean, sinadura horiek guztiak udaletxean aurkeztu dituzte.

Sinadura horiekin bizilagunek zera eskatzen dute: Udalak eskuartean dituen proiektuen eta arau aldaketan prozesua bertan



Urtarrilean hasi ziren sinadurak batzen.

behera lagatzea eta horren gaineko eztabaida herrira zabaltzea. Era berean, arazoari adostutako irtenbidea topatzeko, batzar bat egitea eskatu diote Udalari.

Ekimenaren antolatzaileen esanetan, "horrelako proiektu garrantzitsuak aurrera eramateko herritarren iritzia kontuan hartu beharko lituzke Udalak".

ERRETIRATUAK


Batzorde berria osatu dute erretiratuek

AINTZANE IRIZAR

Aurreko zapatuan, apirilak 2, urteko batzar orokorra egin zuen Erretiratuaren Elkarteak. Aurreko urtearen erreposoa egin zuten eta aurtengo aurrez ikusten dituzten diru kontuen eta ekitaldien gaineko azalpenak eman zituzten.

Azkenik, batzordea berriro egin zuten. Batzordea osatzen zuten zortzi lagunetik lauk laga egin zuten euren kargua, eta lau kide berri aukeratu zituzten.

Honako hauek laga zuten batzordea: Jesus Agirrek, Juanita Zabalok, Asensio Azkaratek eta Mari Luz Arregik. Batzordean jarraitzen dutenak hauek dira: Salvador Olabarria, Karmele San Sebastian, Miren Aranguren eta Andoni Azkarate. Batzordekide berriak, azkenik, honako hauek: Migel Montori, Lourdes Arregi, Josefa Aiastui eta Antonio Jurado. Orain, batzordea osatzen dutenek, presidente berria aukeratu beharko dute.



Lau batzordekide berria aukeratu zituzten urteko batzar orokorrean.

HERRITARREN HITZA / Fernando Lete • Langilea

Alfonso Ugarte (1879-1937)

Oraingoa dela egun batzuk herritar batek Alfonso Ugarte zenari buruz galdetu zidanean, konturatu nintzen gure artean ezezagun bat dela 1879an Antzuolan jaio zen musikari eta musikagile hau.


Federiko Ugarte eta Manuela Leturiaren semea zen; 23 urterekin, Lizarrara joan zen bizi izatera eta bertako Karmen Bikuña neskatxa gaztearekin ezkondu zen; hiru seme alaba izan zituzten: Maria Puy, Federiko eta Julio (apaiza).

Hamar urterekin hazi zituen kantu eta organo ikasketak Zumarragan eta Bergaran;

berehala, bere trebetasunez ohartu eta Sekundino Esnaola musikari ospetsuaren laguntza izan zuen lehen urrats haietan.

Ondoren, Donostiako kontserbatorioan goimailako piano eta armonia ikasketak egin zituen.

1902. urtean, oposizioak irabazi ondoren, San Pedro de la Rúa elizako organo jole postua eskuratu zuen eta Lizarrara abiatu zen.



"Garai hartan organo jole goraiatua zen Alfonso Ugarte"

1920an, Lizarrako Udalak Musika Bandaren zuzendari izendatu zuen.

Fededuna eta elizgizona zen Alfonso; ondorioz, konposatutako partitura gehienak elizarako eginak dira. Beharbada, gure artean, *Salbea* da bere obrarik ezagunena, baina obra ugari ditu eta konpositore izateaz gain, garai hartan organo jole goraiatua ere bazen antzuolarra.

Abertzalea izanik, egoera latzak jasan zituen; bere lagunaren artean, abertzale ezagunak zeuden: R.M. Azkue, Manuel Irujo Justizia Ministroa eta Fortunato Agirre Lizarrako Alkate Jeltzalea.

Julio bere semea, apaiza, Loiola gudari batailoiko kapilaua izan zen; Fortunato Agirre lagun mina frankistek fusilatu zutenean, atsekabeterik, bihotzekoak jota hil zen Alfonso Ugarte, 1937an, 57 urterekin.

Ikusten duzueenez, badago Alfonso Ugarte antzuolarraren historian zer ezagutu eta egin beharrik.

LABUR

Independentzia Egunerako txartelak salgai

Datorren asteko zapatuan, apirilak 16, ospatuko dute Independentzia Eguna. Antzuolako Gazte Asanbladak antolatuko du jaiegun hori, eta urteroko bezala, Udal Pilotalekuan izango da. Herri bazkaria izango da hantxe, eta dagoeneko salgai jarri dituzte bazkari horretarako txartelak; Mox. Larrea eta Surpe tabernetan daude salgai, 10 eurotan. Oraindik ez dute egitaraua guztiz zehaztu, baina, bazkariari zuzenean, hainbat ekitaldi antolatzen dihardute gazteek.

ELKARRIZKETA

OLATZ LEZETA/ARROLA MENDIZALE ELKARTEKO PRESIDENTE BERRIA

“Arrolaren egoera benetan kezkaigarria da; batzordea osatzeko arazo handiak izaten ditugu”

A.I.


Martxoan egin zuen urteko batzar orokorra Arrola mendizale elkarteak. Hantxe, besteak beste, batzorde berria osatu zuten; gero, elkarteako presidente berria aukeratu dute, Olatz Lezeta, hain zuzen ere.

Arrolak duen lehenengo emakumezko presidentea izango zara, ezta?

Bai, hala da; dena dela, batzordean gauden kideetatik, erdiak gara emakumeak. Elkartean beti egon da emakume asko.

Orain dela aste batzuk KONTUOLAn argitaratu genuen zuen gutunean, Arrolaren gaur egungo egoera kezkaigarria dela esaten zenuten. Zein egoeratan dago, bada, elkarteak?

Egoera benetan kezkaigarria da, bai, gutunean esaten genuen moduan. Batzordea osatzeko arazoak izan ditugu azkeneko urteotan; ia datorren urterako jende gehiago animatzen den parte hartzera, bestela, erabaki desatseginak hartu beharko ditugu. Nik neuk bi



A.I.

urte daramatzat batzordean eta, berez, kargua bi urterako izaten da, baina jarraitu egin behar izan dut.

Irteeretako parte hartzea, baina, bestelakoa da; orokorrean,

jende askok parte hartzen du, gaztetxoek irteeretan, batez ere.

Antolatu ere, irteera ugari antolatzen dituzue umeendako eta gaztetxoendako. Zeu ere

“Aurten izango dugun berritasun bat da Aiherrara asteburu pasa joango garela”

umetatik hasi zinen Arrolaren irteeretara joaten?

Bai, beti joan izan naiz; beno, gaztetan, garai bat izan nuen mendizaletasuna alde batera laga nuen. Lehenago, gainera, ume denok joaten ginen irteeretara; gaur egun ere, lehen esan dudan moduan, umeak eta gaztetxoak dira finenak.

Aurrera begira, zeintzuk dira zuen erronkak?

Batzordean parte hartzeko jendea topatzea da gure lehenetasuna. Gainera, harremanak egiteko aukera egokia eskaintzen du. Bestalde, aurten izango dugun berritasun bat da aihertarrekin batera asteburu bateko irteera egingo dugula Aiherrara.

LABUR

Patxi Cabori omenaldia egingo diote zapatuan

Martxoaren 18an irten zen Patxi Cabo Martuteneko kartzelatik, eta egun hartan egin zioten lehenengo ongi-etorria herrian. Bihar, zapatua, omenaldia egingo diote; 20:00etan poteoa egingo dute trikitalariekin, eta ondoren, 21:00etan, afaria egingo dute Udal Pilotalekuan. Afaloste-an, berriz, hainbat ekitaldi egingo da; besteak beste, musika talde bat eta bertso-lariak egingo dira.

Arrolak irteera egingo du Balerdi mendira, 17an

Arrola mendizale elkarteak Aralarreko Balerdi mendira irteera antolatu du, apirilaren 17rako, domeka. 08:30ean irteera dira Herriko Plazatik eta Amezketa aldera abiatuko dira. Handik gora ekingo diote ibilaldiari; lau orduko bidea egingo dute, joan-etorrian.

Izena emateko, martitzen, hilak 12, 19:00etatik 20:00etara, egingo da aukera, Arrolak Kalebarrenen duen lokalean.

HIRIGINTZA

Herrian 136.643 kilo birziklatu ziren 2004an

A.I.

Urtetik urtera gora egiten du birziklatzen diren hondakinen kopuruak. Debagoieneko Mankomunitateak emandako datuen arabera, 2004. urtean, guztira, 136.643 kilo hondakin birziklatu genituen antzuolarrak. Papera, kartoia, beira, ontziak eta arropak kontuan hartuta ateratako datua da honakoa. Ibarreko gaineko herriein alderatuta, datu positiboak dira Antzuolakoak.

Debagoieneko Mankomunitateak emandako datuen arabera, 2004. urtean, 64.520 kilo paper eta kartoi batu dituzte herriko edukiontzietan. Horrek esan nahi du biztanleko eta hileko 2,8 kilo paper eta kartoi birziklatu ditugula.

Beirari dagokionez, 52.004 kilo beira jaso zituzten Antzuolan; Biztanleko eta hileko 2,27 kilo eramane genituen edukiontzira.

Ontzien gaineko datuak ere eman dizkigute: guztira, 15.436 kilo ontzi jaso zituzten iaz; biztanleko eta hileko, 0,67 kilo.

Jarri duten azkeneko edukiontzia, berriz, arroparena izan da. Zerbitzu berria dela kontuan hartuta eta gainerakoak bezala egunero sortzen den hondakina ez dela kontuan hartuta, oso erantzun ona izan du zerbitzu honek; 2004. urtean, guztira, 4.683 kilo batu zituzten Antzuolan.

ZABORRA ETA OLIOA

Zaborrari dagokionez, Mankomunitateak ez du herriz herriko daturik ematen. Debagoienean, guztira, 17.782 tona zabor batu

zituzten iazko urte osoan zehar.

Azkenik, birziklatzeko batzen duten sukalden erabilitako olioren gaineko datuak ditugu. Antzuolan, guztira, 2.190 litro batu zituen horren ardura duen Ecogras enpresak. Litro horietatik 1.635 ostalaritzan batu zituzten; gainerako 555 litroak, berriz, etxeetan erabilitako olioak ziren.

Gogoratu behar dugu, hileko azkeneko egubakoitzean etortzen dela Puntu Berde Mugikorra Antzuolara; azokan jartzen dute, 09:00etatik 13:00etara.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Apirilak 9

10:00: Antzuola-Bergara (Infantilak)

12:30: Antzuola-Almen (Neskak)

16:00: Antzuola-Lasarte (Erregionalak)

PILOTA

Apirilak 8

20:00: Olalde-Beloki II (Eskuz kad.)

Ondoren: Olalde-Aretxabaleta (Nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 3 Antzuola 0 (Gazteak)

Antzuola 3 Bergara 0 (Kadeteak)

Urki 1 Antzuola 1 (Neskak)

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40


GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32



Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko apirilaren 8a / 221. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Inbertsiorik handienak Hirigintza batzordean egingo dituzte; besteak beste Pagatzako urbanizazio lanak egiteko.

Udalak 5.443.500 euroko aurrekontua onartu du

IRATI AGIRREAZALDEGI

Apirilaren 1ean EAJ-Earen aldeko eta Aralarren aurkako botoekin onartu zuten aurtengo udal aurrekontua. Iazkoa baino aurrekontu txikiagoa da. la bost milioi eta erdi euro. Eta horietatik lau milioi euro inguru inbertsioetarako erabiliko dituzte.

Joan zen barikuan onartu zuten udalbatzarrean aurtengo aurrekontua; 5.443.501 euro. Iazko aurrekontuekin alderatuz gero jaitxi egin dira. Izan ere, iazkoa 6.808.443 euro izan zen.

Aurrekontuaren zatirik handiena inbertsioetarako izango da: 4.063.622 euro. Inbertsio nagusienak hirigintza arloan egingo dituzte 3.443.394 euro erabiliko dituzte horretarako. Alkateak Pagatzako industria-guneko eta Torrealdeako urbanizazio lanak eta Maala parkea azpimarratu zituen inbertsioen artean.

Honetaz gain, Kiroletako batzordean 300.000 euro erabiliko dituzte pilotalekua berritzeko; Baserritarren batzordean, berriz, 99.870 euro bideak berritzeko.

ARALAR, GOBERNU BATZORDETIK KANPO

Aralarrek aurrekontuen aurkako botoa eman zuen eta EAJ-EAko ordezkariari zera esan zien: "Gobernu-kideon artean adosteko pausurik ez duzue eman. Kontra bozkatzan dugu 2004an aurrekontuei baietz esateko adostu genituen baldintzak eta sinatutako hitzarmena ez dituzuelako bete. Baita Aralarren mozioa aurreko udalbatzarrean sartu ez zenutelako eta iaz baieztokarekin emandako konfiantza ez duzelako aprobetxatu Gainera, aurrekontu hauek ez dute herritarren gehiengoaren babesik".

Aurrekontuak onartu zituzten udalbatzarrean jakinarazi zuen Aralarrek udal gobernu lagatzeko erabakia. "EAJ-EAK ez du onartu udal funtzionamenduaren gaineko mozioa. Gobernu ulertzeko modu ezberdinak ditugu eta gureganako errespeturik ez dute erakusten", esan zuen Oxel Erostarbak.

EAJ-EAK honen gainean zera esan du: "Aralarren ordezkaria Gobernu batzordean ez izatea bere funtzionamenduaren onerako da. Ondorioz, ordezkari horiek Udalaren gobernu onarrendako duten jarrera kaltegarria berraztertu beharrean gaude".

Inbertsioak batzordeka

BATZORDEA	INBERTSIOA
Baserritarrak	216.951 €
Kultura	12.008 €
Hirigintza	3.443.395 €
Osasuna	12.000 €
Zerbitzuak	63.098 €
Hezkuntza	6.938 €
Kirolak	304.732 €
Administrazioa	4.500 €
Guztira	4.063.622€

INGURUMENA

Iaz 57.262 kilo zabor birziklatu ziren

I.A.

Debagoieneko Mankomunitatea arduratzen da herrietako hondakin gehienak jasotzeaz.

Hark emandako datuen arabera, 2004. urtean, Elgetan 57.262 kilo hondakin birziklatu ziren. Datu hau papera, beira, ontziak eta arropak kontuan hartuta ateratakoa da.

Gainontzeko hondakinen bilketa beste era batean egiten denez,

ez dago zehazterik herri bakoitzeko kopururik.

GEHIEN BEIRA

Datu hauek kontuan hartuta beira izan da herrian gehien birziklatu dena, 27.414 kilo. Honen ostean dago papera, 25.443 kilo batu dira. Ontziak jasotzeko edukiontzia berriagoak dira eta 6.155 kilo jaso dira. Gauza berragertatu da arroparekin; 3.750 kilo baino ez dira batu.



Hainbat edukiontzitan jasotzen dira zaborrak.

LABUR

Begirale eta lehen laguntza ikastaroak izango dira apirilean barrena

Hezkuntza batzordeak begirale ikastaroa antolatu du. Apirilaren 23an eta 30ean lau orduko saioak egingo dituzte kultur etxean. Izena eman nahi dutenek apirilaren 15a baino lehen udaletxera jo behar dute eta 15 euro ordaindu. Bestalde, gurasoei eta umeekin ibiltzen diren herritarrei zuzenduta lehen laguntzen gaineko ikastaroa izango da apirilaren 11n eta 13an, 18:00etatik 19:00etara, Herri Eskolan. Interesatuak bertara joan besterik ez dute.

Erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorako herritarrendako bazkaria antolatu du

Erretiratuen elkarteak aurtengo 80 urte edo gehiago betetzen dituzten erretiratuak bazkari batera gonbidatu nahi ditu. Interesatuak Miren Villarri deitu beharko diote apirilaren 30a baino lehen izena emateko (943 76 80 34). Bestalde, Erretiratuen elkartearen batzarra izango da apirilaren 23an 17:00etan Ozkarbi elkartearen. Bertan 2004ko balantzea egingo dute. Bileraren ostean, puzoak banatuko dituzte.

UDALA

Eztabaida foroa sortu nahi dute Agenda 21-en gainean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ekonomia, gizarte-ongizatea eta ingurumena lantzen dituen Tokiko Agenda 21 bultzatzeko egitasmoa ipini du abian Elgetako Udalak. Egitasmoa aurrera ateratzeko herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Bilera egingo dute astelehenean gaiaren gainean eztabaidatzeko foroa sortzeko asmoz.

Tokiko Agenda 21 bultzatzeko Udaltalde 21 Debagoiena egitasmoa garatzen ari da Elgetako Udala Debagoieneko gainontzeko udalekin batera.

Prozesu honen helburu nagusietako bat da udal-kudeaketa pixkanaka ezartzea ekonomia-aren, gizarte-ongizatearen eta ingurumenaren arteko oreka lortzeko. Ondorioz, herritar guztien bizi-kalitatea hobetzea.

HERRITARREN PARTAIDETZA

Honelako prozesuetan herritarren parte-hartzea funtsezkoa dela ikusita, eztabaidarako ingurumen foro bat eratzea eta sustatzea erabaki du Udalak.

Udalak nahi du foro horretan ahalik eta jende gehienek parte hartzea. Batetik, herriko kirol, kultura, ekonomia eta gizarte eragile guztiak egongo lirarteke. Bestetik, Elgetako ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren etorkizunaren gainean ardura duten guztiak.


Udaletik esan digutenez, "herrian bizi edo lan egiten duten pertsona eta kolektibo guztien ekarpenak eta hausnarketak oso baliagarriak izan daitezke jasangarritasunean eta ingurumenarekiko begirunean oinarritutako irizpideetan egindako udalpolitika zehazteko".

EZTABAIDA FOROA

Foroa eratzekeo batzarra antolatu dute. Bilera apirilaren 11n izango da, 19:00etan, udaletxean.

Batzarrean Tokiko Agenda 21 eta Udaltalde 21 Debagoiena aurkeztuko dituzte, baita Elgetako gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren diagnostikoa ere. Herriko gizarte-pertzepzioari buruzko eztabaida ere egongo da. Ondoren, zalantzak argitzeko aukera izango da.

KULTURA



GOIENKARIA

Euskararen egunerokotasunean sortzen diren egoera bitxiak erakutsiko dituzte.

'Euskararen zazpi bekatu nagusiak' gaur Espaloian

I.A.

Gaur, barikua, *Euskararen zazpi bekatu nagusiak* antzezlanaren ikusteko aukera izango da Espaloian 22:30ean.

Aitzpea Goenagak idatzitako antzerki testuan oinarrituta dago eta Olatz Beobidek eta Edi Naudok zuzenduko dute. Taula gainean izango diren aktoreak, berriz, Niko Lizeaga, Mikel Lascurain eta Lierni Fresnedo dira.

Euskara ikasi, erabili, bizi eta hitz egiteko behararen arazoia da obraren mamia. Euskararen egunerokotasunean sortzen diren hainbat egoera bitxi erakutsiko ditu antzerkiak, euskararen arazoak mahai gainean jarrita. Ondoren, ikusle bakoitzak bere ondorioak atera beharko ditu.

Sarrerak 12 euro balio du; bazkideek, berriz, 10 euro ordainduko dituzte.

HERRITARREN HITZA / Eduardo Zubiaurre • Enpresaburua

Lan orduak

Aspaldian lan orduei buruzko eztabaidetan murgilduta gaude eta era guztietako arrazoiak entzuten ditugu lana murriztu edo luzatzearen alde: lehiakortasuna, giza eskubideak, langabezia, etab.

Argi dago lanak esanahi ezberdinak izan ditzakeela. Gogoz egin eta "zenbatekoak" baino "nolakoak" garrantzi handiagoa duen jarduna izan daiteke, "gustuko tokian aldaparik ez" esanez egiten duguna.

Eta, baita ere, "behar" bezala hartu, poztasun edo gozamen gutxi eman eta zenbat eta gutxiago are eta zoriontsua-

go bihurtzen gaituen zeregina.

Baina gizakiok bizimodua eta lana uztartuta ditugun bitartean eta sistema ekonomiko hoberik asmatzen ez dugun artean, gure lanak "balio" bat izango du.

Eta zuzenean edo zeharka, norbait egon beharko da prest egiten dugun hori "ordaintzeko".

Horrez gain, murgilduta gauden iraultza ekonomiko honetan (teknologia, ezagutza



"Norbait egon beharko da prest egiten dugun lana ordaintzeko"

eta globalizazioaren ezaugarriak dituen) ekonomian beti betetzen den legeak (urria baliotsu bihurtu eta ugaria baliogabetzen duena) bere isla izango du arlo honetan ere.

Horren ondorioz, sinistuta nago egoera bitxiak sortu daitezkeela etorkizunean lan ordu ordainduei dagokionez. Adibidez, lan baliotsuena gustura egindakoa izatea eta lan mota hau ordu gutxitan eginda ere bizitzeko lain izan

arren, langileak gustuko zeregin hori ahalik eta gehien luzatzea. Hau da, gizakion sormena, partehartzea eta ezagutza erabiliz egingo den jardura. Edo okerragoa izan daitekeen egoera, lan aspergari edo mekanikoetan aritzea, eta balio gutxiko zeregina bihurtuta, beharginak gero eta lan ordu luzeagoak egitea bizimodu duina lortu ahal izateko.

Bizi garen mundu honen bilakaera kontuan hartuta, ez dut erreza ikusten europarrok Asian edo Amerikan baino %15 lan ordu gutxiago eginez gaur egun dugun ongizate maila luzaroan mantentzea.

LABUR

EAJ-EA lanean Torrealdeako obrak laster hasteko

EAJ-EAko zinegotziek idatzi baten bidez jakinarazi dute lanean dihardutela Torrealdeako babes ofizialeko etxebizitzetan lanak abiarazteko. Atzerapenak direla eta "atsekabetuta" daudela esan dute. Bestalde, diote Hirigintza batzordeko buru Joseba Muxikaren lana "garrantzitsua" dela. "Animatzen dugu egindako kudeaketa ezin hobea jarraitzeko. Elgetaren etorkizunarentzat beharrezkoak diren egitasmoak gauza daitezten: Pagatzako industria handitzea, Torrealdea eta Uriburuko etxebizitzak eta hirigintza arloko beste hainbat proiektu".

KIROLA

LAU T'ERDIKO ETB KANTXA TXAPELKETA

Apirilak 8

21:00: Elurbe-Aranburu (23 urtez azpikoak)

Gero: Olazabal-Lamberd (23 urtez azpikoak)

Gero: Elizalde-Garcia (23 urtez azpikoak)

Gero: Arañarena-Armendariz (23 urtez azp.)

Apirilak 9

16:30: Badillo-Calvo (Kadeteak)

Ondoren: Gorrero-Etxeberria (Kadeteak)

Gero: Benito-Lasa (23 urtez azpikoak)

Ondoren: Alberdi-Vicente (23 urtez azpikoak)

Apirilak 10

11:00: D. de Ulzurrun-Garaialde (Kadeteak)

Ondoren: Etxeberria-Alberdi (Kadeteak)

Gero: Loiarde-Epelde (Kadeteak)

16:30: Lezaun-Errazkin (Kadeteak)

Ondoren: Bolinaga-Artola (Kadeteak)

Gero: Alvarez-Resano (23 urtez azpikoak)

Ondoren: Tabar-Urriarte (23 urtez azpikoak)

ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Apirilak 9

15:00: Vicios-Isspro. Makanaki

16:00: Fuxion-Makanaki Vicios

17:00: Maccabi-Añiketan Txapela

18:00: Txapela-La Kokotxa. . . Maccabi

OSMA
PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salbador kalea 19 behea • 20690 ELGETA
Tel.: 943 768 127
Mobila: 677 032 739

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA
TEL.: 943 76 92 71

Goibekokale

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 8a / 1. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS1084/02

Ganbara Abesbatzak jaialdia egingo du bihar

OIHANA ELORTZA

Jaialdi berezia izango da. Narratzaile batek Ganbara Abesbatzaren historia kontatuko du modu arinean eta argazkiak, bideoak, testimoioak, grabaketak eta kantuak ere ikusi eta entzungo dira. Sarrerak kultura etxean daude salgai 5 eurotan.

Joan den urteko azaroan egin zituen 10 urte Oñatiko Ganbara Abesbatzak eta bihar, zapatua, urteurrena borobiltzeko jaialdia egingo dute Zubikoako frontoian 22:30ean. Jaialdi berezia izango da, musika ez ezik, narratzaile bat, argazkiak, testimoioak eta bideoak ere ikusi eta entzungo direlako, besteak beste.

JIALDI BEREZIA

Joxe Antonio Azpiazua historiariak idatzi du modu arinean Ganbara Abesbatzaren historia eta Paulo Anduagak euskaratu du. Istorioa, Aitor Elduainek kontatuko du.

Ganbara Abesbatza baina, ez da bakarrik egongo jaialdi berezi honetan: Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Oñatiko Abesbatza ere ondoan izango ditu. Ekitaldian, gainera, aurreko abeslariak ere hartuko dute parte.



Abenduan atera zuten lehen CDa, *Sagatz*.

GANBARA ABESBATZA

Argazkiak, bideoak, narratzaile bat, kantuak eta sorpresak egongo dira jaialdian.

10 URTE ETA GEHIAGO

Oñatiko Ganbara Abesbatza 12 lagunek osatzen zuten duela 10 urte eta egun 23 dira. Sari asko irabazi dituzte Euskal Herrian zein kanpoan eta lanean jarraitzeko asmoa dute aurrerantzean ere. Datorren astean Pasai Antxora doaz.

KOMUNIKABIDEAK

Orriale osoa izango du Oñatik aurrerantzean Goienkarian

O.E.

Aste honetatik aurrera, bi edizio Goienkaria argitaratuko dute egubakoitz oro eta Oñatik orrialde osoa izango du astero. Aurrerantzean, Goienkariaren barruan Bergara aldeko edizioa ere jasoko dute Oñatiko etxeetan eta edizio horrek jasoko du Oñatiri eskainitako orrialdea.

Orain arte lau edizio argita-

ratu ditu Goienkariak eta gaurtik aurrera bi kaleratuko ditu. Bata Leintz aldekoa izango da eta hori banatuko dute Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Gatzagan eta Aramaion. Beste edizioa Bergara aldekoa izango da eta hori jasoko dute Bergaran, Antzuolan, Elgetan eta Oñatin.

Beraz, hemendik aurrera, Goienkaria mardulagoa, sendagoa, jasoko dute Oñatin. Orain

arteko Goienkariak gain, Bergarako edizioa jasoko dute barnean. Guztira 40 orrialdeko aldizkaria jasoko dute egubakoitz oro.

HELBIDEA

Aurrerantzean toki gehiago izango du Goienkariak Oñatiko berriak argitaratzeko. Hauexek dira telefonoa eta helbidea oharrak bidaltzeko: 943 76 92 71 eta oinati@goiena.com.

TURISMOA



Turismo bulegoa zabalik egon da eta Unibertsitatean informazio puntua jarri zuten.

Bisitari asko etorri dira Aste Santuan

O.E.

Turismo bulegoak emandako datuen arabera, inoiz baino bisitari gehiago izan dira aurtengo Aste Santuko oporretan Oñatin. Ia mila lagun etorri dira guztira, 974 zehazki. Joan den urtean 571 lagun etorri ziren eta duela bi 654.

Bisitariak Gipuzkoatik bertatik zein Euskal Herria kanpotik etorri dira: %27a, adibidez, Bizkaitik etorri da eta %26a Kataluniatik. Valentziatik, Erresuma Batutik, Frantziatik, Arabatik eta Nafarroatik ere etorri dira

Oñati bisitatzen. Turista ingeles bat, adibidez, hirugarren urtean etorri da.

BISITA GIDATUAK

Bisitari gehienak gida eta guzti etorri dira eta Oñatin ikusteko zentzudagoen jakinda, erdiak baino gehiagok hartu dute parte bisita gidatuetan: unibertsitatea eta parrokia ikusi dituzte besteak beste. Ordubeteko bisitaldiak izan dituzte eta Oñatik Erdi Aroan zuen garrantzia eta historian izan duen garapena ikusi dute. Arantzazun ere izan dira.

LABUR

Chuck Prophet musikari estatubatuarra Gaztelekuan izango da zapatu gauean

Chuck Prophet estatubatuarrek kontzertua eskainiko du Gaztelekuan zapatu gauean. 1990 arte Green on Red taldean aritu zen, orduetik hona bakarlarik dabil eta dagoeneko 15 disko argitaratu ditu. Pop, rock, blues, soul edo funky musikan kokatu daiteke.

Arratsaldeko 18:30ak arte egongo dira itxita erdiko kaleak eta Elorregirako bidea

Euskal Herriko Itzulia Oñatin amaitzen delako, gaur, egubakoitza, 18:30ak arte itxita egongo dira ibilgailuendako erdiko kaleak eta erlojupekoa egingo duten auzoak. Elorregirako bidea ere itxita dago Madalena parean beraz, Udantatik sartu eta irten behar da herrira. Eguerdian, 14:00etan itxi dituzte bideak. Itzuliaren azken egunean, 180 oñatiar inguru ibiliko dira antolakuntza lanetan.

Musikak ez du adinik

Anima Zaitetz...

Matrikulak
Apiriletik Ekainera
zabalik

- Instrumentu musikalak
- Aurre hizkuntza musikala (5 urtetik aurrera)
- Hizkuntza musikala (helduentzat ere)
- Biolina (Suzuki Metodoa 3 urtetik aurrera)

Taldeak: Orkestra, Banda, Abesbatza, Akordeoi Ork




BERGARAKO MUSIKA ESKOLA
Espaloia, Bergara · Tel. 943 765780



Udaberria-uda

Mirari
JANTZIDENDA

Neurriak
38tik 60ra

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 609.54 16 13

IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre-1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA
Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrerera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXEIA Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

UNZUETA Irene San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Iruñe Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

OTORRINOLARINGOLOGOA

IGARTUA ALMANDOZ Julian Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 47. alia

IEPA LAGUNOK!

Zelako txorimalo edarrak ikusi nittuan Erramu Zapatuan! Benetako artistak zarete! Eta zelan pasau dittuzue Aste Santuko oporrak? Ondo ezta? Orain badakizue, berriz ikastolara txintxo-txintxo. Bixen bittartian ondo pasau APATXIko ale honekin.

Gogoratu erantzunen orrixa ondo bete ezkerro, opari polittak irabazteko aukeria daukazuela. Horretarako, orrixa ikastetxian bertan entregatu bihar dozue. **ZORTE ON!**



URREZKO ARAUAK

Askotan aukeria adierazteko *leikedozue*, *leikedot* eta antzerako berbak erabiltzen dittuzue, baiña hala-kuak ez dira oso zuzenak. Horren orde *neike*, *zeinke*,... erabili bihar dira.

- Nik mingaiñakin sudurpuntia ikutu neike.

- Eta zuk, ikutu zeinke?



- Nik mingaiñakin sudurpuntia ikutu ~~leikedot~~.

- Eta zuk ikutu ~~leikedozu?~~



ERREZETIA

GAZTA PASTELA



Errezetia egitteko pausuak:

- Ontzi edo lapiko haundi batera osagai danak bota eta honek ondo irabiatu batidoriakin.
- Molde haundixa hartu eta hau guriñakin igurtzi. Jarraixan irin puska bat bota pastela pegatu ez dadin. Moldera nahastutako ore dana bota.
- Labia 200 gradotan berotzen jarri, 5-10 miñutuz.
- Moldia labian sartu eta 20 miñutuz gutxi gorabehera bertan euki.
- Pastela labetik etara eta hozten laga.

Osagaixak:

- 2 yogur natural
- 6 arrautza
- "Filadelfia" moduko gazta (250 gr)
- Esnegaiña edo natia (tetra brick txikixa)
- 4 basokada esne.
- 3 basokada azukre
- 1-2 basokada irin

Yogur potia erabili zeinkie basokada neurri moduan.

OHARRA

Hemendik aurrera jolas bakoitza marrazki batekin juango da, honetxek dira:



Loria: 3-6 urteko umeentzat gomendatua




Baloia: 7-9 urteko umeentzat gomendatua




Kometia: 10-12 urteko umeentzat gomendatua

SOIÑUAK

Zeinek edo zerk egitten dau soiñu bakoitza? Lotu zenbakixak eta letrak



- 1 KRI-KRI
- 2 TXIO-TXIO
- 3 DILIN-DALAN
- 4 EJU-EJU!
- 5 MIAU
- 6 TAS-TAS
- 7 TRAKATAN-TRAKATAN



HOROSKOPUA



capricornus abenduak 23 | urtarrilak 20
Zeure osasuna garrantzitsua da. Izaten ditzuzun buruko eta tripako miñak ondo sendatu bihar ditzuzu. Zaindu zaitte!



libra irailak 23 | urriak 22
A zelakotxe kantari eta dantzari ona zaren! Inguruko danak dantzan jartzen ditzuzu beti. Zer egingo giñuke zu barik?



aquarius urtarrilak 21 | otsailak 19
Zelako lagun ona zaren! Beti ingurukuei laguntzeko eta entzuteko gertu. Baiña aiatxo eta amatxori be hainbeste kasu egitten dotsezu?



leo uztaillak 23 | abuztuak 22
Zu ez zara ikastolako agintarixa, e? Aginduak emotiari laga biharko zontsake eta inguruak zu bezalakuak dirala ikusi.



piscis otsailak 20 | martxuak 20
Zelako irribarre ederra daukazun! Hola ikusi nahi zaitut hemendik aurrera, barrez eta ez negarrez, oso zatar jartzen zara eta.



scorpius urriak 23 | azaruak 22
Zelako pozik zaren azkenaldi honetan! Udaberrixaren eragiña izango ete da? Edo akaso neska edo mutillen bat gustatzen jatzu? Zeinek ete daki!



cancer ekaiñak 22 | uztaillak 22
Nagi xamar zabitz azkenaldi honetan. Etxeko lanak egittia ahaztu egitten jatzu, klasian despistatuta zabitz ... Zer gertatzen jatzu ba? Zu ez ziñan ba halakua!



virgo abuztuak 23 | irailak 22
Pertsona batekin maitteminddu zarela begibistakua da. Baiña ez zaitte hainbeste lotsatu zeure lagunak galdetzen dotsueñan. Oso polita da maittemintzia.



sagittarius azaruak 23 | abenduak 22
Zer egitten dozu diruarekin? Dana egun batian gastatu biharrin, gordetzen eta aurrezten ikasi biharko ziñuke, bestela



aries martxuak 21 | apirilak 21
Oso txintxo portatzen zabitz azkenaldian. Zergaittik ete? Ez da izango zeure urtebetetze eta erregaluengaittik ezta? Horrela izan dedilla aurrerantzian be.



gemini maiatzak 22 | ekaiñak 21
Ikastolan beti bezain langille jarraitzen dozu eta hori oso ona da. Hola jarraitu, kurtso bukaeria oso gertu dago eta



taurus apirilak 22 | maiatzak 21
Gehixegi haserretzen zara zeure lagunekin. Zeure lagunak zuri? laguntzeko dare eta batzutan gehixago entzun biharko zontseke.

KOMIKIXA 'Gizon puzkarrontzixa'




Egillia: Julen Sanchez
Ikastola: Mariaren Lagundia
Mailla: 3.A.

KUMAKA



Bi pertsonaren artian egitekua da esku-jolas hau. Batek soka edo hari mehe bat hartuko dau atzamar artian, bi muturrak lotuta darella. Lehenengo, laukiluze baten figura osatuko dau honek; gero beste lagunak harixak hartu eta bere atzamarretara pasatzen dabean bittartian, beste irudi bat egitten ahaleginduko da; poliki-poliki, lotura eta irudi gehixagorekin eta nekezaguekin pasatzen juango da hari-axa batetik bestera. Zenbat eta irudi gehixago osatu, hobe.

Harixan korapilloren bat egitten danian edo harizko irudixa narrasten danian bukatzen da jolasa.



INKESTIA

Nun pasatzen dittuzu asteburuak: gehixenbat etxian ala kalia? Zapatu eta domekatan zer egitten dozu? Zetan jolastia gustatzen jatzu? Eta nun jolasten zara gehixenetan? Ziberlekura juaten zara?



Beñat Lizarralde
9 urte
Aranzadi LH4ko ikaslia

Bergaran eta kanpuan; Bergaran naguanian zapatu eta domekatan kalia ibiltzen naiz, futbolian jokatzen dot eta domekatan mendira juaten naiz. Gehixenetan seminarixuan ibiltzen gara, eta Aranzadiko inguruan be bai. Ziber-era 8 bider edo juan naiz.



Maddi Txintxurreta
10 urte
Aranzadi LH4ko ikaslia

Asteburutean Ezkaraiko etxian egoten naiz gehixenetan. Askotan etxian egoten naiz, telebista ikusten, kalia piska bat aspertu egitten naiz eta. Kirola egittia be asko gustatzen jat, futbolian egittia; eta baita lagunekin berba egitten egotia, litxarrerixak jaten ... ; gehixenetan frontoian egoten gara. Ziber-era ez naiz juaten ordenagailua etxian daukat eta.



Iosu Alonso Oregi
9 urte
Aranzadi LH4ko ikaslia

Gasteizen egoten naiz zapatu eta domekatan; Bergaran naguanian kalia ibiltzen naiz, eta lagunekin ziburuetan eta ezkutaketan jolasten naiz, gehixenetan Aranzadiko poligonoko eskolan. Batzuetan Usondora be juaten gara. Ziber-era ikustera juan naiz, baiña ez jat gustau.

AHO-KORAPILLUA

Errepikatu zeinke hamar bider aho-korapillo hau nahastu barik?

Beliak Uberara zeozer daroia;
Badaroia beria daroia;
Baba erria ahuan daroia.



KANTUA



Umiak min hartzen dabeanian kantatuiozu, min hartu dabean lekuan igurzten dotsazun bittartian.

Senda, senda, miña
Muxu oillo miña
Senda, senda, miña,
Juan da Maddiren miña.

IPUIÑA

BIXIGUA ETA SENAR-EMAZTIAK

Sartu kuadroko berbak dagokixen hutsunian

Bixigua /etxe / erreka / jan

Behin, senar-emazte batzuk bixigu bat zeuken afalorduan jateko. Arratsaldian, gizona mendixan zebillen bittartian, andriak bixigua erre etaa..... egin zeban. Gizona aillegatzeko zorixan zeguala konturatuta, zezer pentsatzen hasi zan andria, zelabait azaldu biharko zotsan bixigua desagertu izana ...


Menditik jaitsita, gizona etxeratu zan halako batian eta andriak esan zotsan:

-Ai Peru! Guri gertauko ez jakunik ez dago. Bixigua iltze batetik zintzilikatu dot eta begira ez nenguan momentuanb.....ra salto egin ez dau ba arrain lotsagabe horrek ! Ezin izan dot harrapatu.

Gizonak, hori entzunda, makillia hartu eta erreka bazterrak miatzera abixau zan. Baiña alperrekuak izan ziran bixigua topatzeko egin zittuan ahalegin danak. Zihero etsitta, etxera bueltatu zan. Etxe aldera zetorrela, arrain saltzaille baten otarrian bixigu eder bat ikusi zeban.

-Hortxe dago, begi gorrixa! -esan eta bixigua hartuta etxera eruan zeban.


Arrain saltzaille Peruri jarraika eta gaizkiesaka hasi zan. Kaleko danak barrez lehertzen zeren halako zaratia entzunda. Bakia egittiagaittik, zaldun batek saltzailiari bixiguaren dirua emon zotsan.



Peruc.....ra aillegatu zanian, bere arduran hartu zeban afarixa egittia. Lapiko haundi bat urez bete eta bertan sartu zeban bixigua. Sutan jarri zeban eta aldamenian jarri zan makilla bat eskuetan hartuta arraiñak bigarrenez ihes egin ez zeixon.

Aittaren batian hasi zan lapikua irakitten. Peruk, arraiñak ihes egin nahi zebala pentsatuaz, lapikuari makillaka hasi jakon eta txiki-txiki egin zittuan bai lapikua eta baid..... be.

Egun horretan ezin izan zeben bixigurik afaldu eta erru osua bere andra gaiztuarena izan zan.



JOLASA

Baietz asmatu soken bi muturrak lotzen!



IRABAZLIA



Andoni Gallastegi Agirre
9 urte
Aranzadiko ikaslia

Juan zan hilleko lehiaketaren erantzun zuzenak:

- **IKUSI MAKUSI IGARKIZUNAK:** Eguzkixa eta I letria.
- **ALFERRAREN ASTIA abestixa:** a= 4; b= 6; c= 5; d= 2; e= 3; f=7; g= 1
- **JOLASA:** Gizonezkuak ala andrazkuak?
GIZONEZKUAK: aitta, koiñatua, lehengusua, aittajauna, osaba, suhiña, aittagiñarrebía, anaia, maisua, semia.
ANDRAZKUAK: ama, koiñatia, lehengusiñia, amandria, izeba, erraiña, amagiñarrebía, arrebía, ahiztia, maistra, andereñua, alabía.
- **UME HIZKERIA:** Jan.

San martin eskolako Mikel Azkarate eta Aranzadi Eskolako Idoia Agirrezabalek ere sari bana jaso dute.